



Talde sendo baten jarduera. 80ko eta 90eko hamarkadak. 1980-2002

Garai honi buruzko datuak eta argibideak ematen hasi baino lehen, egoki izango da dataren mugak argitzea (1980-2002). Zatiketa nahikoa arbitrarioa dela aitortzen dut, baina urte horiek izan ziren Antton Mari Aldekoa-Otalorak Elkarteko presidente gisa eman zituenak (ñabardura bakarra: 1980an presidenteordea zen, Sabin Goikolea izan zen Elkarteko buru. Antton Mari 1981etik aurrera izan zen arduradun nagusi).

1984. Jose Antonio Azkorbebeitia eta Jon Irazabal.


1986. Jose Luis Lete, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta Jose Mari Sors, Astolako egoitzan.



Epeari buruzko argibideak eman ondoren, bi pertsona ezagun aurkeztu behar dizkizuet. Ezagunak dira, jende aurrean sarritan agertu direlako eta testu honetan aipatu ditudalako dagoeneko. Bata Antton Mari Aldekoa-Otalora da, plaza-gizon jaioa. Hainbat ekitaldi aurkezten ikusi dugu. Antton Mari patxadaz mintzatzen da, beti ere hitz egokia aukeratuz.

Bestea Jon Irazabal da. Honek ere sarritan aideratu ditu hitzak jende aurrean, urte askotan berari egokitu zaiolako komunikabideei Azokaren berri ematea. Antton Marik baino ahots kaskarragoa daukala ez dugu ukatuko, baina musika-talde honetan bera izan da baxu-jotzailea, berak jakin baitu erritmoa jartzen Durangoko Azokari 1987tik 2011ra bitartean.

Baina musika-taldeak ez luke musika egokirik sortuko beste hiru kideren lanarengatik izan ez balitz. Lazaro Milikuak, Jesus Mari Salterainek eta Jose Antonio Azkorbebeitiak bigarren iladan jo dute, fokuen argi-errainuen ezkutuan. Bosten artean nolabaiteko "zuzendaritza taldea" eratu zuten.



1983. Txillardegi, Arantxa Urretabizkaia eta Juan San Martin.

1983. Merkatu plazan.

Saltek, taldea eta taldearen sendotasuna aipatzearekin batera, beste izen gogoangarri bat aipatu du: “Talde horretan aipamen berezia merezi du Jose Luis Letek. Berak jarri du askotan zentzuna, zorrotasuna eta fintasuna. Pautak asko markatu zituen hil zen arte. *Kuadrila* bat ginen”.

Lete irakaskuntzari loturiko euskalzalea izan zen. Irakaslea izateaz gain, pedagogia arloan ere aritu zen. Esate baterako, oharturik Durangaldeko irakasleek eskualdeko historiari buruzko material gutxi zeukatela, Gerediaga Elkartearen dokumentategia bultzatu zuen. Irazabalen ustez, “politikoki oso definituta zegoen arren (Euskadiko Ezkerrakoa zen), ikuspegi oso zabala zuen, eta pentsamolde desberdineko jendearengana hurbiltzeko zubi-lana egiten jakin zuen”. Zoritzarrez, oso gazterik hil zen. “Leteren falta asko igarri genuen —diosku Irazabalek—. Bizi izan balitz, euskara hutsezko Azoka gehiago egingo genituen beharbada”.



Nahiz eta taldeak kanpotik presio handia jasan eta kide guztiek pentsamolde berdina ez izan, ondo baino hobeto moldatzen ziren elkarrekin. Inoiz ez omen ziren haserretu, eta gaur egun ere lagun izaten jarraitzen dute. Badirudi horixe izan dela gakoa hainbeste urtetan elkarrekin lanean aritzeko, uzta emankorra lortuz eta tirabirak alde batera utziz.





Arduradunekin hizketan

Egoera-aldaketa

70eko hamarkadaren hasieran Francoren aurka-ko pentsamoldea nagusia zen. Alderdi politikorik ez zegoenez (edo legezkatuta ez zeudenez), “Gerediaga guardasol zabal bat zen”, Antton Mari Aldekoa-Otaloraren iritziz. 1975ean, diktadorea hil ondoren, hainbat aldaketa ezagutu genituen: Diputazioak eratu ziren, lehen udal-hauteskundeak egin, eta abar. Egoera aldatu egin zen eta Elkarteko kide askoren iritziz ere ez omen zegoen Gerediagaren premiarik. Elkarteko kide asko ere iritzi horretakoak ziren.

Antton Marik honela gogoratzen du egoera hura: “Gerediagako jende dontsuak: ‘Hi, hau amaitu duk. Oraindik hor zabiltzate? Hau utzi orain’. Orduan jendea sakabanatu egin zen alderdi politikoetara [bera Herri Batasuneko zinegotzia izan zen]. Beste batzuk sindikatuetara joan ziren. Hartu genuena




altxor bat zela uste dut. Ez liburu-azoka, Gerediagaren potentziala baino. Ni ez nengoen prest hura uzteko, ezta inguruan suertatu ginen apurrok ere. Ondo konpontzen ginen eta iritzi horretakoak ginen. Mantendu egin behar zela”.

Lazaro Milikuak (garai bertsuan idazkari lanak egin zituen taldekideak) antzeko hausnarketa egin du: “Orduan ezin zen politikarik egin, partidurik ez zegoen. Ez zegoen ezer. Orduan Gerediaga erakunde nahiko permisiboa zen eta arlo guztietan lan egiten zuen. Gerediaga ate bat zen, hortik lan egiteko”.

Salte iritzi berekoa da. Bere hitzek aurrekoen oihartzuna dirudite, paragrafo berbera ispiluan ikusita: “Apertura etorri zen eta jendea politikara joan zen. Eta gero esan zuten Azoka ez zela behar, Gerediaga ez zela behar. Hori gaitzuta dagoela egoera politiko berriarekin. Eta hor geratu ginen lau katu”.

Alegia, neguan, hegohaize zakarren ostean, txori-habia zuhaitz biluzian egoten den antzera geratu ziren, agiri-agirian, babesik gabe, umezurtz ia-ia.

2005. 40. Azoka prestatzen. Maitane Mendiguren, Esther Soto, “Epi” Garcia, Asier Atxa, Jon Irazabal, Nerea Mujika, Jose Mari Bilbao eta JM Salterain.





Lan egiteko modua

80ko hamarkadaren hasieran Gerediagak ez zeukan Azoka antolatzeko moduko azpiegiturarik. Hori zela-eta, kideek gertu eta eskura zeuzkaten baliabideei atera behar zieten etekina, nahitaez. Lazaro Berrizko idazkaria zela aprobetxatuz, behin-behineko kuartel hartan babestuta antolatzen zuen Azoka.

L. MILIKUA: “Liberatu barik egon ginen. Nik montatzen nuen Azoka Garaiko eta Berrizko udaletxeekin, udaleko bi neskaren laguntzaz. Zentroa Berrizko udaletxean zegoen. Orduan telefonorik-eta ez zegoen, orain dagoen moduan. Antolaketa oso gogorra izaten zen. Gainera, gauzak antolatzeko joan egin behar zenuen tokietara. (...) Ordurik sekula ere ez dugu begiratu”.

1981. Xabier Gereño, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta Lazaro Milikua.

80ko hamarkada. Antton Mari Aldekoa-Otalora eta Lazaro Milikua.

90eko hamarkada. Iñaki Aldekoa-Otalora, Arkarazo, JM Bilbao eta Amalio Roman.



Bi zereginei aurre egiteko (Administrazioko lanak burutzeko eta Azoka antolatzeko), Lazarok ordu asko egiten zituen lanean, eta Berrizko udaletxetik goizaldean irteten ikustea ohikoa zen. Lazarok aitortzen duenez, “Oso sasoi gogorra izan zen, Administrazioan ere dena egin beharra zegoelako” (orduantxe eman zen diktaduratik sistema berri-rako jauzia). “Asko eskertu behar zaie Garaiko eta Berrizko udalei”.

1980an Gerediaga Elkarteak Jon Irazabal hartu zuen Lazaroren laguntzaile, zeregin eta arduren zama arintzeko.





1997. Azokako Taberna Cambridge diskotekan.

1988. Azoka merkatu plazan.

Diru kontuak

Jose Luis Letek labur eta argi azaldu zuen aurrekontuaren bilakaera: "Aurrekontuak Azokaz Azoka aldaketa nabarmenak izan ditu, lehenengo Azokako 100.000 pezetak, hamabosgarrenean 800.000 pezetara iritsiz; aurtengoan [1985ean egin zituen adierazpenok] Gerediaga Elkarteak 5.500.000 pezetako aurrekontua du"¹².

Jon Irazabalek diru-iturrien berri eman digu: "Gastuei aurre egiteko hainbat bide lantzen genituen: standak alokatzea, Durangoko Udalaren dirulaguntza, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena (1980ra arte Espainiako Gobernuak jasotzen genuen horren orde) eta enpresa pribatuak. Eta ez dugu ahaztu behar Bizkaiko Foru Aldundiak egiten ziola aurre urtero sortutako zorrari".

¹² Egin. 1985, abenduak 5.

ANTON MARI: "Orduan zorrek egiten genituen eta Di-putazioak estaltzen zuen zor hori. Fin ibili ginen. Zorra 10 bazen, 10 aurkezten genuen eta ez 40".

J.M. SALTERAIN: "Urtero joaten ginen Gobernura diru eske. Egon diren kontseilari guztiengana joan gara, eta beti egin dugu topo murrizketekin. Martin Ugalderekin ere eztabaidan ibili ginen diru-kontuengatik. Tristeia zen. (...) Jose Luis Lizundiak diru finko bat lortu zuen Legebiltzarrean zebilenean. [Sektore pribatura ere joan dira ate-joka: Eroskira, BBKra eta abarretara]. Denborak aurrera egin ahala, nik uste hobeto ibili garela jendearen aurrean saltzeko orduan. Gero, editoreei ere dirua atera behar zaie. Beti negarrez ibiltzen ginen standik stand dirua batzeko. 'Ez duzue ordaindu'. Beti ihesean zebiltzan, eta gu euren atzean".

L. MILIKUA: "Liburu Azoka aurrera ateratzea zen gauzarik inportanteena. Diru kontuak gero konponduko ditugu. Pentsa, momentu batean kredituak-eta eduki genituen, erdi pertsonalak [Anton Marik eta berak arriskuak hartu zituzten]. Goienkalen pisu bat geneukan. Azkenean saldu egin genuen, kredituak-eta ordaintzeko. Kaja Laboralak asko lagundu zigun".





1999. Balendin Lasuen Argizaiola ematen Jimeno Juriori.

1986. Euskara hutsezko Azoka. Antton Mari Aldekoa-Otalora, Balendin Lasuen, Piarres Xarriton, Ander Salaberria (Durangoko orduko alkatea) eta Juanjo Ziarrusta.



Hurbilekoak, aurkariak, liskarrak eta abarrak

L. MILIKUA: “Eztabaida pilo bat. Gobernura joan... Gu apestauak ginen orduan momentuan. Politikamente ez geunden ondo ikusita.

JON IRAZABAL: “1987ko azaroaren 26an hitzarmen bat sinatu genuen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailarekin. Horren bitartez, Jaurlaritzak zuzenean parte hartu nahi zuen Azoka antolatzeke lanetan. Zurrumurruen arabera, Azoka disidentzia-gunea zen, ezker abertzalearen eremua. Hala ere, Iñaki Zarraoak (Sailburuordeak) eta Jaione Gamindek (Kultura Ondarearen zuzendariak) Gerediaga independentea zela eta garbi jokatzeko zuela beretsi zuten”.

ANTON MARI: “Azokaren inguruan genbiltzanak okerrak ginen, bide okerrekoak. Patxi Zubikaraik [EAJko alkatea Durangon] hau esan zidan behin: “Zu zarenarekin, zergatik ez zatoz guregana?”

Aldekoa-Otaloraren ustez, garai hartan hainbat jende pasatu zen “artalde onera”. Zubikaraik antzeko eskaintza bat egin zion berari ere.

J.M. SALTERAIN: “Inoiz ez gara izan sektarioak. Kolore batekoak, bai! Nahiz eta eurok gu deabruzatzen eduki, bai batzuek eta bai besteek”.

Antton Marik harremanen konplexutasunari buruzko hausnarketa interesgarria egin du, adibide berezi bati aipamena eginez.



ANTON MARI: “Antonio Tovar Elorrioren hazitakoa zen (aita Elorrioko notarioa izandakoa). Antonio Tovar falangista izan zen gaztetan. Franco Hendaian egon zenean Hitlerrekin, Antonio Tovar itzultzaile egon zen tren horretan. Eta euskaraz ikasi ei zuen, edo euskera bere senean sartu omen zen behintzat. Española zen, baina zabala. (...) Frai Juan Zumarragakoak bere arrebari euskarazko karta bat idatzi zion Mexikotik (*Linguae Vasconum Primitiae* baino aurreragokoa). Ba, hain zuzen ere, Antonio Tovarrek horretaz hitz egin zuen Durangoko Azokaren inaugurazioan 80an. [Antton Marik hunkitu egiten dela aitortu digu]. Garai horretan ni lehendakariorde nintzen”.





1988. Euskara hutsezko Azoka. Natxo de Felipe, Txillardegi, (?), Jokin Apalategi eta "Amatiño".

1988. Mahai-ingurua Azokan. Laura Mintegi, Jean Louis Davant eta Pablo Sastre.

80ko hamarkada. Azoka merkatu plazan.



Paradogikoa bada ere, Antton Marirentzat posible da horrelako pertsona bat, ideologikoki urruti dagoena, gertu sentitzea, eta gero hurbileko jendearekin tirabira gehiago izatea.

J.M. SALTERAIN: "Nik uste Azoka egitea borroka permanentea izan dela, bai Udalarekin, bai Gobernuarekin. BBKk, aldiz, uste dut beti eman digula dirua. Bestalde, gure jendea geneukan kontra. Hala ere, jarraitu egin genuen".

ANTON MARI: "Batuetan etxekoekin min hartzen zenuen (ezker abertzalea, lagunak, ingurukoak, AEK...) Guk sentitzen genuen gureganako eraso. 'Biluztu zaitezte, ze horiek dira...' Horrelako hainbat jende euren trajeak jantzita ikusten ditut orain. (...) Mari Karmen Garmendia hainbat bider etorri zen. Gero Azokan buelta bat egiten genuenean, jendea txistuka-eta hasten zen. Momentu desitxurosoak ziren".

Urte zalapartatsu haietako beste egoera bat ere badakar gogora Antton Marik: "Momentu gogorra izan zen. Salte *barrura* sartu zutenean (1990ean, ETA-ko kolaboratzaile izatea leporatuta). `Ikusten, Ge-

redia gakoak zer zareten?'. Eta orduan ere tokatu zitzaigun esatea: 'Aupa Salte!' Momentu onak ere bai. Momentu onak gehienak. Behin inaugurazioa eginez gero, Azoka badoa. Harreman pertsonal berroak eta sanoak ere sortzen ziren".

Hurbilekoen artean, laguntza eskaintzen zuen gertuko jendea legoke. Jon Irazabalek izen hauek gogoratu dizkigu: Jabi Zubikarai, Jose Luis Iturrieta, Jabi Lauzirika, Josemi Oskoz, Andoni Mujika, Mikel Sopelana, Jesus Mari Agirre eta *Epi* (Esther Garcia).



1981. Karlos Garaikoetxea Lehendakaria eta Patxi Zurikarai.

1994. Jon Irazabal Argizaiola ematen Goio Monreali.

Politikarien presentzia

Lehenengo urteetan Azokaren aurkezpena eta sarrera-hitzaldiak udaletxean egiten zituzten. 1980an ere hantxe egin zuten sarrera-hitzaldia, baina gainerako batzar eta mahai-inguru guztiak Azokako areto berrian egin zituzten. Merkatu-plazan behin-behineko baliabide teknikoak erabili, bilgune txukuna atondu zuten, sekulako jendetza elkartzen zen han antolatutako ekitaldietan. Aldaketa ulergarria da. Batetik, erosotasuna aipatu behar da (salto kitik gertu egotea); eta, bestetik, herritar xumeei udaletxera sartzeak erreparatu handiagoa emango ziela, seguru asko. Iraganeko "ofizialtasunak" jende aukeratuarentzat prestatua ematen zuen, agintariek eta jakintsuek ekitaldi handikiak, "solemneak" egiteko, alegia.

Beraz, zenbait urtetan intelektualak joaten ziren udaletxera. Ikus dezagun, baina, agintariak joaten ote ziren intelektualen gunera.



ANTON MARI: "Oker ez banago, Ramon Labaieni Argizaiola saria eman genion nire garaian. Labaieni ez zen inoiz etorri Azokara. Azokakoak ginelako... Ibarretxe lehendakaria behin bakarrik etorri zen, nire azkenengo Azokara. Kulturakoak etorri dira beti. (...) Ezkerrekoentzat ere txarrak ginen gu, 'Vendidos al poder'."

Dena dela, bigarren eta hirugarren mailako politikariek argazkietan agertzeko ahaleginak egiten omen zituzten.

L. MILIKUA: "Geu ginen antolatzaileak eta aurkezpen-mahaian ez geneukan lekurik. Politikariak muturra non sartuko ibiltzen ziren. Bueno, eta igual horrela izan behar du!"

ANTON MARI: "Azoka batean oso nabarmen. Batean gogoratzen dut bazterrean aulki barik nengoela, erori beharrean, eta neuk esan behar 'Egunon, hemen gaude...' Egoera beltzak, *txungoak*".





Nori ez zaio burutik pasatu noizbait mundu hau hankaz gora dagoela? Badirudi Lazaro Milikuak antzeko gogoeta bat egingo zuela politikarien ustegabeko jokamoldeak ikusirik. Alegia, hurbilekoak aurka eta urrutikoak adeitsu sentitu ondoren.

L. MILIKUA: “Kultur delegaritzakoak beti etortzen ziren Azokara. Nahiz eta eskuinekoak eta dena delakoak izan, Azokara etortzen ziren. Kultura Ordezkarria Madrilekoa zen, Gobernu Zibiletik zetorren. Gero hutsune handiagoak ikusi ditut bertako jendearekin. Nik uste dut Durangoko Azokan aurten ere lehendakariak egon beharko lukeela Durangon. *Segundos espadas* bidali dituzte normalean Durangora. Delekatua inauguraziora eta afarira ere etortzen zen. Eta dirua jasotzen genuen Estatutik. Lehendakaria Donostiako Zinemaldira eta beste hainbat ekitalditara joaten da. Eta Durangoko Azokako denboran agenda beti okupatuta edukiko ote du?”

Garaikoetxea behin etorriko, eta bisitaldi hartan egoera xeble bat gertatu behar izatea marka handia da gero. Jon Irazabal izan zen egoera desatsegin hartako protagonista nagusia. Garaikoetxeak 1981eko Azoka inauguratzeko asmoa omen zuen, baina, asmoak asmo, ez zuen inauguratu azkenean. Hala ere, beste egun batean agertzea erabaki zuen. Abisurik eman gabe etorri zen, ezker abertzalekoek iskanbilarik egin ez zezaten. XIX. eta XX. mendeetan Durangoko inprimategietan egindako liburuak ikustera joan zen Ezkurdiko erakusketa-aretoa. Garaikoetxea Patxi Zurikararekin (garai hartako Durangoko alkatearekin) eta harrijasotzaile tankerako morrosko talde batekin agertu zen. Irazabal, Gerediagako ordezkaria zen aldetik, berrikerian ari zen agintariekin. Halako batean, lehendakaria prentsari galderak erantzuten hasi zen. Kazetari batek galdera zorrotza egin zion. Otsailaren 23ko Estatu-kolpeari buruzkoa. Hori entzutearekin batera, Irazabalek, txistua —eta protokoloaren arau guztiak— irentsi ondoren, gortinen ostean ezkatutu zen ziztu bizian. Politikariak, kazetariak eta enparauak zur eta lur utzi zituen desagerpen misterioitsu hark. Ondoren, egoera eta jokabidea argitzea egokitu zitzaion. Soldaduskan zegoela, Azoka antolatze baimena eman ziotela, militarrek arretaz aztertuko zituztela han egindako argazkiak, lehendakari separatistaren ondoan agertzea ez zitzaio la komeni, eta abar. Irazabalek aitortzen duenez, “egun hartako barre-zantzoek oihartzuna eragiten didate oraindik belarrietan”.

1998. Jose Antonio Ardanza Lehendakaria eta Sebastian Lizaso bertsolaria.

1989. Antton Mari Aldekoa-Otalora, Balendin Lasuen, Javier Pradera, Pilar Ardanza, Iñaki Zarragoa eta Jose Luis Telleria.



1996. Azokako karpa Berrioren lursailean.

Azoka eskuratzeko ahaleginak

Durangaldeko gailurrik garaiena Anboto da. Mendikate eder baten ordezkari nagusia dugu. Edonondik ikusteko moduko mendi eder horrek laino berezi bat izaten du tontorrean sarritan: *Amillena*. Nahiz eta zerua garbi egon, Anbotok txapela izaten du gainean, eguraldi desegonkorra gogorazten diguna. Bada, Azokari ere antzeko mehatxu bat etortzen zaio gainera noizean behin. Alde batetik, Azokaren filosofia aldatzeko edo lemari beste norabide bat emateko gogoazaltzen da batzuetan (arestian aipatu dugu, eta aurrerago ere aipatuko dugu); eta, bestetik, Azoka sorlekutik beste norabaitera eramateko tentazioa eta saiakerak izaten dira noizbehinka. Batzuek kukuaren estrategia iritziko diote horri (inoren habiara sartu eta bertako arrautzak kanpora botatzea) eta beste batzuentzat interes desberdinen arteko lehia leiala izango da. Honetan ere, zenbat buru hainbat aburu.

L. MILIKUA: "Bilboko Erakustazokara eramateko asmoa zuten. Durango txikia da, hemen ez dago ezer... Beti kexakin".



Antton Marik Jaurilaritzako arduradun batzuek egindako proposamena dakar gogora: "Zuek zer behar dozue? Geuk ipiniko ditugu. Guk jarriko dugu sekretarioa, azafata bi. Eta guk: Ez, ez, Azoka Gerediagarena da".


Gobernuaren aldetik eskaintzak izan ote zituzten galdetuta, Antton Mari hau erantzun digu: "Azken batean, eurek kudeatzeko". Eta guk tentazio hori askotan gertatu ote den jakin nahi. Hona hemen erantzuna: "Ondiño be tentazioa badagoela esango nuke. Azken batean denen nahia kontrola da".

Honez gero ondotox konturatuko zinetenez, lehia hori askotan gertatu da Azokan. Joseba Arregi Jaurilaritzan zegoenean Azoka Bilbora eramateko saiakera gogoratu digu Jose Luis Lizundiak. Proposamen hari ezetza eman zioten, herri ertainek euren rola bete behar dutela argudiatuz eta Tolosako abesbatzen lehiaketa gogoratuz. "Nik aspaldi definitu nuen Azoka egunetan Durango hiriburu kultural bihurtzen dela".



Eladkane Barakati
Luzon, Taywan

Armenian women in Luzon, Taiwan, during the 1990s. They are wearing traditional head coverings and dark clothing. The room has a patterned rug and a wall with a decorative element.



Euskara hutsezko azoka

Badirudi Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren “euskal” hitzak berak azokaren nortasuna definitzen duela neurri batean. Horretaz euskalzaleok berdin ez, baina gutxienez berdintsu pentsatzen dugula uste dut. Are gehiago, euskalzale gehienok begi onez ikusi genituela euskara hutsez egin ziren hiru edizioak. Asmoak asmo eta ahaleginak gorabehera, ekimen hark ez zuen egin bide luzerik.

L. MILIKUA: “Ahalegin bi-edo egin genituen udaberriko azoka eta udazkeneko azoka egiteko. Uda-berrikoa euskara hutsean, baina porrot egin zuen. Jendeak ez zuen erantzun. Nik uste bi asko zirela. Gero hurrengo pausua izan zen, Gabonetakoa ‘euskaldunagoa’ egitea”.

Antton Mari ez da iritzi berekoa. Proiektu haren inguruko hausnarketak zer pentsatua ematen du.

ANTON MARI: “Nik ez dakit nire erreflexio bakarra den... Nik ez dut uste frakasoia izan zenik. Nik ez dut egiten irakurketa hori. Apustu sendo bat izan zen. Eta ez harrokeriaz baina bai harro esan genezake, Euskal Liburu eta Disko Azoka Durangon gure taldeak bermatu, tentetu eta sendotu zuela. Aurretik sortu zen, aurrekoek jorratu zuten eta ez dakit zer, baina gure ideien artean egon zen Azoka ‘euskal azoka’ bihurtzea. Eta hor konturatu ginen kontrario asko geneuzkala. Era berean, euskal editoreek euskal produkzio guztia abendurako utzi beharrean... Euskara hutsezko Azoka bi edo hiru urtetan egin genuen. Euskal produktioa (Elkar, Erein eta abar)... maiatzaren azkenean edo ekainaren hasieran izaten zen, udarako irakurketak eta pixka bat merkatua arintzeko”.



1988. Euskara hutsezko Azokaren irudia.

1988. Azoka merkatu plazan.



1988. Euskara hutsezko Azokaren irudiak. Goian, Jabi Zurikarai, Mirari Erdoiza, Amaia Eguskitza eta Jon Irazabal.



Filosofiaren zertzelada batzuk eman ondoren, zenbakien bidez argituko digu ustezko porrota.

ANTON MARI: “Kazetariak datoz jende kopuruari buruz galdezka. Iazkoarekin alderatuta, porrota. Iazkoan zenbat stand? 200. Bestean, 70 (zenbakiak handi-handika esaten ditu, baina azalpena argigarria da). Baina hori baino txarragoa, Eusko Jaurlaritzak azokarako 100 (kopuruak ez dituela gogoratzen aitortzen du). Beste azoka bat egin behar dugu. Ondo. Biak egiteko, 110. Jaurlaritza diogun moduan, Diputazioek berdin. Frakasoa hortik etorri zen. Irakurketa hori egin behar da”.




Euskaltasunaren aldetik Aldekoa-Otolora ezkor ageri da: “Euskaltasuna galtzen ote doan... Proklametan inkluso. (...) Azoka euskalduntzearen arnasmune inportante bat izan da. *Ibilaldia, Kilometroko* eta horiek baino gehiago. Horiek gehiago izan dira jaialdi. Guk espiritu hori mantendu genuen, azokaren euskaltasun hori. Orain uste dut guardia jaitsi egin dela”.



Jon Irazabalen ustez arazoa ez zen ekonomikoa izan.

JON IRAZABAL: “Euskarazko azoka abenduko Azokaren anexo bat, atal bat izan zen. Fisikoki espazio berdina, standak berdinak, irudia berdina. Gaur egun, orduko argazkiak ikusita, zaila egiten zaigu jakitea zein zen zein. Lortu izan bagenu Azoka beste nonbaiten antolatzea, eta beste irudi bat eman izan balitzaio... Beste egitarau bat, beste pertsonalitate bat... jarraituko zuen aurrerantz. Horrez gain, Jose Luis Leteren heriotzaren ondoren, hirugarren azoka egin genuen, baina transmisioa egiteko ez genuen izan behar adina indar”.

Irazabalen iritziz bazegoen eta badago euskara hutsezko azoka baten premia. Eurek eredia aukerazterakoan huts egin arren, norbait saiatu beharko litzateke berriro, Durangon, Balmasedan nahiz beste edonon.





1985. Liburuak merkatu plazan (goiko argazkia) eta diskoak Andra Marin (beheko argazkia).



2008. Karlos Zarraga eta Jon Irazabal.

Editoreak

Durangoko Azokan gairen bat saldu nahi duenak arau zehatz batzuk bete behar ditu gaur egun: liburuak, euskaraz idatzitakoak izan behar dira, edo bestela edozein hizkuntzatan idatziak baina euskal gaiei buruzkoak; musika, berriz, euskara hutsean izan behar da; eta beste gune guztietako ekitaldiek (antzerkia, zinema eta abar) euskara hutsean izan behar dute.

Dena dela, aspaldi baldintzak malguagoak zirenez, arazo bat baino gehiago gertatzen zen: euskal gaiekin zerikusirik ez zuten liburuak saltzea, liburu berdina hainbat saltokitan aurkitzea, eta abar. Arazo horietaz oharturik, Gerediagako arduradunek egoera nahasiari irtenbide egokia bilatzea erabaki zuten, eta horretarako editoreekin batzartu ziren behin baino gehiagotan.

Liburugileekin nola konpontzen ziren jakin nahian, grabagailua jarri diegu berriro Azokaren antolatzaileriei.

Nolako harremana zeneukaten editoreekin?

L. MILIKUA: "Txarra eta ona. Normalean, ondo. Guk arategi bat geneukan: norke parte hartu dezakeen, zer saldu dezakeen, eta abar".

Editoreen artean Joseba Jakak berebiziko garrantzia izan zuen, ezta?

L. MILIKUA: "Nik uste dut momentu batean Azoka salbatu zuena Jaka izan zela. Harekin negoziazio gogorrak izaten genituen. (...) Nik uste gure objektiboak-eta sentitzen zituela. Eta, beste alde batek, gure arauak gehien bete zituenena bera izan zen. (Egile txikien lanak bideratzen ere lan pilo bat egin omen zuen). Eta eskertzekoa da".







1994. Azokako standak.



Lazaro Milikuak banatzaileak eta bereziki Joseba Jaka aipatu duenez, hona hemen Jakak *Eguna* egunkariari adierazitakoak¹³ XXI. Azokan. “Banatzailearen ikuspegitik nola ikusten da Durangoko Azoka?” galdetu zion kazetariak.

J. JAKA: “Oso bide onetik, urtez urte urrats handiak emanez. (...) Gerediaga elkarteko langile sutsuen gidaritzapean, bide izugarria egin du, espazio fisikoa faltatzeraino iritsi den azoka nazional bakarrak. (...) Urtez urte eta, edo beharraren arabera egin direla uste dut behar ziren hobekuntzak: toki aldaketak, liburuak stand ezberdinetan ez errepikatzea, katalogoa, etab. (...) Lotsagarria da benetan hain garrantzizkoa den kultur ekintza bati hain diru gutxi eskaintzeko instituzio-gizonen jokabidea”.

Jon Irazabalen hitzak ere harreman onaren adierazgarri dira.

J. IRAZABAL: “Harremana oso pertsonala zen askotan. Joseba Jaka, bezeroa baino laguntzailea zen gehiago momentu batzuetan”.

Irazabalek dioenez, euskal gaiak finkatzerakoan edo mugatzerakoan sortzen ziren arazoak. Editore batzuen lanek ez zuten zerikusirik euskal gaiekin. Argudioak “ni hemengoa naiz” eta “ni ezkertiarra naiz” eta antzekoak izaten omen ziren sarritan. Gari bateko zenbait argitaletzek (Elkar, Erein, Ibaizabal eta abar) beste konzientzia bat zuten. Gerora sorturiko editorial berriek, aldiz, standak ordaindu eta euren eskubideak aldarrikatzen dituzte. Hori da mentalitate aldaketa. “Harreman zuzenagoa” eta “konplizitatea” hitzak aipatu dizkigu Irazabalek. Profesionaltasuna heldu den neurrian, orduko dohaiak desagertuz joan dira.




¹³ *Eguna* egunkaria. 149. zenbakia. 1986, abenduak 4.



80ko eta 90eko hamarkadei lotutako printza aipagarri batzuk

1980an Azoka "osoki birpentsatu beharra" planteatu zuen Joan Altzibarrek *Jakin* aldizkariaren 12. alean. Besteak beste, honako aldaketa hauek proposatu zituen: antolaketan profesionaltasun handiagoa, kokapen txukunagoa eta stand hobeak.



Urte hartan euskarari loturiko aurkikuntza aipagarri bat egin zuten. Enrique Otte-k testu berezi bat aurkitu zuen Sevillan dagoen Indietako Artxibategian: Frai Juan Zumarragakoak XVI. mendean euskaraz idatzitako testu luze bat. Testu horretan askotan aipatzen ditu Durango eta Merindadea. Urte hartan bertan, Enrique Otte, Koldo Mitxelena eta Antonio Tovar hizkuntzalariek testuari buruzko ikerketa argitaratu zuten Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariaren 26. zenbakian. Eta hain zuzen ere Tovarrek gai horren inguruan eman zuen urte hartako Azokako sarrera-hitzaldia.

Sarrera-ekitaldia izan ezik, gainerako ekitaldi guztiak ere Azokako areto berrian egin zituzten. Horri esker, jendetza handia elkartu zen ekitaldi guztietan. Nik bat gogoratzen dut bereziki: Ramon Etxezarretaren *Erotismo hiztegia* liburuaren aurkezpena. Besteak beste, Joxe Lizaso bertsolariak berotu zuen ekitaldiko giroa. Hango barre zantzoak! Euskarak eremu intimoan ederki komunikatzeko balio duela erakutsi ziguten saio hartan; gozo eta zakar, zuzen nahiz zeharka.

1996. Proiektoa eta karpa, kanpotik eta barrutik ikusita.



1995. Jasone Agirre eta Ramon Saizarbitoria.

1992. Oskorriren emanaldia.

1981eko Azoka baino egun batzuk lehenago, azaroaren 31an, Gerediagak ezohiko batzarra egin zuen Garain. Berrogei argitaletxe eta disketxetako arduradunak bildu zituen batzarrera. Etabaidatutako gaien artean eta ateratako ondorioen artean bat izan zen garrantzitsuena: Durangoko Azoka editoreentzako eta disketxeentzako azoka zela. Durangon, bakoitzak ekoiztutakoa baino ez zuten jarriko salgai. Durangokoa, beraz, ez zen izango liburu-saltzaileek best-sellerrak saltzeko toki bat. Horrez gain, banatzaileek erabaki batzuk ere hartu zituzten liburu berdinak ez eskaintzeko.

Abenduaren 7an, "Euskal Telebista Eskolako" ki-deak "Euskal Telebista eta bikoizketa lanak" gaiaren inguruan mintzatu ziren. Bikoizten ari ziren filmen zatiak erakutsi zituzten hitzaldian zehar. Ted Lange aktore beltza (*Vacaciones en el mar* telesailakoa) euskaraz hitz egiten ikusteak harridura eta barre-algarak eragin zituen. Beste garai bat zen, zalantzarik gabe.

Iñaki Beobidek bikoizketari buruzko hitzaldi bat eman zuen. "Urtebete barru euskaraz laugarren telebista kanala" irekiko zutela iragarri zuen hitzaldian eta *Egin*eko lerroburuan¹⁴. Donostian eta Bilbon bikoiztaileak trebatzen ari zirela zioen. "Egunen batean egunero pare bat orduko filme programazioa egin nahi bada, asko egin behar baita aldez aurretik". Egia galanta! Baina orduko ametsak okerreko bidea hartu zuen. Lekutan daude amestutako eguneroko bi orduak...

¹⁴ *Egin*. 1981, abenduak 8.



1983ko Azoka iragartzeko kartelak Hegoaldeko udaletxeetara eta eskoletara bidali zituzten. Helbidea euskaraz idatzi zutenez, Nafarroako udaletxeetara bidalitako gehienak itzuli egin zituzten, "desconocido" hitza gehituta. Gerediagakoek "Ayuntamiento" idatzi beharrean "udaletxea" idaztea nahasgarria gertatu zen nonbait... Egoera mingarri baten adierazle izango ez balitz, xelebrekeria hutsa dela esango genuke.

1984an Joan Mari Torrealdai ezkor ageri da *Egin*-en¹⁵: "Euskarazko liburugintza pronostiko erreserbatuan oraindik". Torrealdaiak desorekak antzematen ditu: bata, argitalpenak irailetik abendura bitartean kontzentratzea, eta bestea, edukien desoreka. "Euskarazko liburugintza erakunde publikoei esker ozta-ozta bizirik segitzea lortzen du", dio elkarrizketaren amaieran.

¹⁵ *Egin*. 1984, abenduak 7.





Urte hartan, Durangoko Udalak merkatu-plazako itoginak konpondu eta tokia margotu zuen. Horrez gain, udaltzainak ere jarri zituen gauzez azoka zaintzeko. Adostutako zereginen artean, fatxadako hiru mastetan ikurrinak ipintzeko ardura ere hartu zuen Udalak. Antolatzaileak zur eta lur geratu ziren hurrengo egunean: masta bakoitzean Espainiako bandera bat zegoen. Gorrotoaren sua pizteko moduko gertakaria izan zen hura. Garai hartan, banderak zirela-eta, sarritan gertatzen ziren “banderen gerrak” (Guardia Zibilaren eta manifestarien arteko liska-



rrak). Besterik ez zuten behar... Udaletxera deitu eta gaizki-ulertua izan omen zela jakin zuten antolatzaileek. Haien ordez ikurrinak jarri, eta aurrera.

1988an jende berria sartu zen Gerediagako lan-taldean: Itziar Irazabal eta Gorka Barruetaña “Txapel”. Urte hartako *Juntan* (Aldekoa-Otalora, Mili-kua, Azkorbebeitia eta Salterainekin batera) beste kide batzuk ere bazebiltzan lanean: Ander Ertzilla, Iñaki Barañano, Amaia Eguzkitza, Miren Biotza Ertzilla, Jose Luis Ferreria eta Jabi Zurikarai. Izen horiek ez gogoratzea barkaezina litzateke.

1990. Mekatu plazan.

1992. Merkatu plazan.

1995. Karpa ipintzen Azoka kalean.





Azkenengo urteak

Nerea Mujika, presidente

2002koa izan zen Antton Mari Aldekoa-Otaloraren azken Azoka. Antton Marik bere ibilbidea agurtzeko, Bibliako zita bat aipatu zuen sarrera-hitzaldian. Israelgo herria Egiptotik irten ondoren, Moisesek mendi baten gailurretik honako hau esan omen zuen: “Begira, horra zuen herria. Ni ezingo naiz heldu, baina hura da zuen herria”. 2003an Landakogunea inauguratu zuten.



Handik gutxira heldu zen Nerea Mujika Gerediagara. Mujika durangarra da baina Debarreneko doinua antzematen zaio hizkeran. Ahots gozoa dauka, mantsoa; hala ere, badu gaitasuna ideiak irmo eta serio adierazteko. Beldurtia dela aitortzen du, baina zama handiko gurdi bat gurdibidetik errepidera eramatea erabaki du. Hautu hori 2004an egin zuen, Gerediaga Elkarteko zuzendari izateko ardurari heldu zion egunean. Gainera, azken urteotan (2013tik aurrera) lan gehiago egitea egokitu zaio, berak egiten baititu Azokako bozeramaile lanak. Lanbidez irakaslea eta Euskal Gaien Institutuko zuzendaria da Deustuko Unibertsitatean.

2004an, Gerediagan buru-belarri lanean hasi zenean, elkartearen erdipurdiko egoeran aurkitu omen zuen: “Alde batetik, talde bat oso baldintza eskasetan lanean; bestetik, nire ezjakintasuna. Ez zegoen gerentziarik, Jon Irazabalek egin behar izaten zituena dirulaguntzen eskariak, eta abar”.



2002. Teknologia berriak Azokan.

2014. Lehen orduko lan-batzarra, Aitziber Atorrasagasti, Maialen Odriozola, Esther Soto, "Epi" Garcia, eta atzekaldetik Asun Elorriaga.

Nereari mihia askatzea proposatuz, atzoko kontuak eta gaurkoak urkulduko ditugu.

Nerea, nolakoa da zure lana Azokaren aurretik eta Azoka egunetan?

NEREA MUJIKA: "Azoka egunak egun zoroak izaten dira. Aurten, 2014an, komunikabide aldetik esajeratua izan da. Hori nahi dugu, oihartzuna, zabalkundea. Euskal Herrian bakarrik ez. Ahal dela, kanpoan ere bai. Aurten Frantziako telebista estatalak (France 3 Aquitaine) programa bat zuzenean egin du Azoka-tik. Baina eromena ez da lau egun horietara mugatu. Bezperan eta aurreko egunetan ere lanpetuta ibili naiz. Goiz osoa eman nuen ETBn eta gero gauean debate bat. Izugarria da: telebistak, irratiak eta abar. (...) Komunikabideetan, erakundeen aurrean eta protokoloan neuri dagokit ordezkari izatea".

Beraz, komunikazioari indar berezia eskaintzen diozue.

N. M.: "Komunikazio arloa Itziar Irazabalek egiten zuen hasieran, gero Izaskun Ellakuriagak. Ondoren, Arrasateko AZ eta Goiena Komunikazioa aritu ziren, eta orain Abadiñoko *Di-Da* enpresa arduratzen da horretaz. Komunikazioa eta gerentzia beharrezkoak ikusten gertu".

Nerea, zein izan da Gerediagaren helburu nagusia Azokari begira azken urte hauetan?

N. M.: "Azoka `Euskal Liburu eta Disko Azoka´-tik `Durangoko Azoka´ izatera pasatu da. Izen aldaketa horrekin gaurko Durangoko Azoka Euskal Kulturaren Plaza dela adierazi nahi da. Bertan, liburu eta diskoa funtsezkoa izanik, kulturaren beste formatu gehienak ere biltzen dira (antzerkia, zinea, teknologia berriak...). Euskal kulturaren transmisioari ere aparteko lekua eman diogu eta, gainera, iaztik hona, hausnarketa-espazioa ere sortu dugu, Gogoeta Gunea, gaurko euskal kulturaren inguruko gai batzuetaz hausnartzeko, partekatze eta eztabaidatzeko espazioa. Euskal Kulturaren Azoka bizi bat eta osatu bat lortzen ahalegintzen ari gara eta horretarako bidelagun desberdinekin bat egin dugu (Ahotsenea, Azoka TB, Irudiena, Plateruena, Kabia, Saguganbara, Szenatokia...)"







Azken aldaketak egiteko zein irizpideri jarraitu diozue?

N. M.: “Alde batetik, gure mugetatik kanpo ateratzea; beste alde batetik, Azoka Durangoko herrira zabaltzea, horrek mesede egiten dio herriari eta hori azken batean bat dator gure filosofiarekin. Beste klabe inportante bat: kulturaren plaza bihurtzea. Nik uste ondo gabiltzala hor. Orain, momentu honetan gure helburua jende gaztea erakartzea izan da”.

Gazteak erakartzeaz gain, Mujikak euskal kulturarekin harreman handirik ez daukan jendea ere erakarri nahiko luke. Helburu hori lortzeko nola joan behar den galdetu diogu.

N. M.: “Belarriak erne izatea eta gure atek zabaltzea. Eta ez hori bakarrik. *Altabozean* (ozen) pentsatu genuen denon artean nondik nora jo behar genuen. Eta arlo bat izan zen Azoka. Azokaren geroa hausnartu genuen eta horrek balio izan zigun norabidea finkatzeko. Eta horretan asko lagundu zigun Josean Urdangarinek 2007an egindako txosten bikainak. Begiak zabaltzeko modukoa izan zen”.

2003. Julio Medem Azokan.

2003. Platerueneko karpa Azoka aurrean.



2011an Gerediaga Elkartek Azokaren etorkizunari buruzko “barne-gogoeta” egin zuen. Ondorio pila bat atera zituzten (horietarik asko adierazten ditu Nereak bere jardunean). Hala ere, gogoetaren ondorio nagusietako bi azpimarratzea komenigarria da: bata, “Euskal kulturaren sustapenean erreferente izate horretan hazten jarraitu nahia”; eta bestea, “aldaketa sozial, kontsumo-eredu berri eta kultur-izaera berrietara egokitu eta eguneratu beharra”.



2008. Informazio standa. Mirentxu Abasolo, "Epi" Garcia eta Esther Soto.

2004. Standak Landako Gunean.



Elkarrizketaren batean Azokaren "balio estratejiko" aipatu duzu. Zer esan nahi du horrek?

N. M.: "Azoka estratejiko da euskal kulturarako". Ideia hori azpimarratu nahi dugu. Egun zehatz batzuetan eta eremu oso mugatu batean erakusten duelako euskal kulturaren produkzio gehiena. Eta estratejiko da, baita ere, sortzaileek eta kontsumitzaileek bat egiten dutelako. Hori ez da beste inon gertatzen horrelako neurrian".

Nolako ekarpena egin dio Azokak euskal kulturari?

N. M.: "Nik uste dut Azokara datorren bisitaria eta ni neu ere oso harro sentitzen garela dauzkagun emaitzekin, eta mailarekin: literaturan, musikan, antzerkian, ikus-entzunezkoetan, teknologia berrietan eta etorkizunera begira dagoen hausnarketan. Niretzat bitaminak eta proteinak dira".

Gerediagako beteranoei inoiz entzun diet esaten Azoka Gerediagarena dela. Elkarrekin pentsamolde edo sentimendu horri eusten dio oraindik? Gerediagaren irizpideei jarraiturik egin behar da Azoka aurrerantzean ere? Guneei ez diozue arriskurik ikusten?

N. M.: "Azoka Gerediagak antolatzen du. Antolatzeak dakarrena da erantzunkizun handi bat. Gerediagak sortu zuen Azoka, eta jarraitzen du antolatzen, baina ez du bakarrik antolatzen, lantalde batean lan egiten du. Nik uste gaizkak hobera doazela".

Nolako Azoka antolatu nahi duzue? Zein izango litzateke ezaugarri nagusia?

N. M.: "Helburua da euskal kulturaren ahalik eta esparru gehien bertan batzea eta kalitatezko azoka bat antolatzea".

Azokaren finantziariotik zenbat da publikoa eta zenbat pribatua?

N. M.: "Iaz (2014an), esate baterako, %51,02 publikoa izan zen eta %48,98 pribatua".

2014an Nerea Mujikak agerraldia egin zuen Legebiltzarrean, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordearen aurrean. Eskari bat egin zien politikariei. Adostasuna eskatu zien talde politiko guztiei, "Durangoko Azokak euskal kulturarentzat duen izaera estratejiko aintzat hartuta eta behar duen egonkortasun ekonomikoaren alde lan egiteko".





Azokari buruz denek esaten omen dituzte gauza ederrak, baina gero dirulaguntza gutxi dago. Legebiltzarrean egoera kritikoa berri eman zenuen. Politikariak jabetu dira Azokaren garrantziaz eta bizi duen egoeraren larritasunaz?

N. M.: “Beti jaso dugu laguntza, baina momentu batean ez da izan nahikoa. Hori izan da... Legebiltzarrean joan izana, Gerediagaren estilorako, espero ez zuten ekintza zen. Hala ere, guk hori egin aurretik beste bide batzuk ere jorratu genituen”.

Zu zuzendari zarenetik zein une gogoratzen dituzu bereziki?

N. M.: “Nire semeak Durangaldeko standaren atzealdean liburu saltzen ikusi nituenean. Oso gogoan daukat Benito Lertxundiri Argizaiola eman nion momentu hunkigarria, nire betiko idoloa izan delako. Eta gogorra izan zen Aiert Goenaga, Azokako zuzendaria izan zenarekin, izan genituen gorabeherak”.

Elkarteak ez zuen ontzat eman haren lan egiteko era, eta zuzendari-eginkizuna utzi behar zuela erabaki zuen. Orduan, lehendakaria Nerea izanik, berak heldu zion ordezkari-talari.

N.M.: “Batzuek pentsatuko dute gaur eguneko modeloa Aierti zor diogula, baina Azokaren modeloa gure plan estrategikoan zegoen. Aiertek horren alde lan egin zuen. Sortzailea eta langilea zen, baina ez genuen elkar ulertzen”.

Eta une gozoak?

N. M.: “Une gozoak, hainbat: atea zabaltzen denean. (Putz egiten du) Inpresionantea! Demasa! Eta zabaldu aurretik ere, standak eta dena prest dagoela ikustea. Hori itzela da. Eta umeak sartzean, gazteak sartzean... Olatu hori...”

Nola ikusten duzu etorkizuna?

N. M.: “Elkarteak profesionalizatzen ari direla ikusten dut. Uste dut bilakaera normala dela. Kalitatea helburu izan behar dugu. Erne egon behar dugu, iritzi guztiak onartzeko ez, beharbada, baina bai jasotzeko. Beste galdera bat da ‘noraino jarraitu behar dugu hazten?’. Hor neurtu egin beharko dira indarrak eta diruak. Ondo pentsatu beharko dugu. Entzun. Gustukoa duguna eta gustukoa ez duguna. Gero, talde-lan ona egin Gerediaga barruan; iritzi desberdinetako jendearekin, baina lan egin nahi dutenekin. Eta ez da erraza. Modelo honek ez dauka atzera-bueltarik”.

2001. Bittoriano Gandiagari omenaldia San Agustinen.

2005. Landako Guneko sarrera.





Azokaren ibilia markatu zuten gakoak

Agintariekin arazoak eta zentsura

Diktadura luzearen azkenetan gizartearen joko-arauak oso estuak zirenez, agintariekiko harremana ez zen izan batere erraza. Legedia urratu ezik, edo arau murriztaileak saihestu ezik, kulturgintzak eta gizarteko ekimen askok ezin zuten aurrera egin. Ondorioz, jendea muga-mugan ibiltzen zen. Eta arauak hautsiz gero, *ordaindu* egin behar.

Jose Ignazio Alberdik, esate baterako, garai gogorretako adibide larri bat aipatu digu: euskaraz hitzegiteagatik eta euskaraz kantatzeagatik isunak jarri zizkietela.

1972. Jose Ignacio Alberdi, Nikolas Alzola "Bitaño", Francisco Amorrortu eta Balendin Lasuen.



Lasuen lehendakari izan zen garaian baimena eskatu behar zen edozein egitasmo nahiz ekitaldi aurrera ateratzeko.

B. LASUEN: "Baimena eskatzeko, karta bat egin behar genuen. Zer proiektu zegoen, zein taldek burutuko zuen, nongoak ziren eta horrelako datu guztiak. Idatzi hura Bilbora eraman behar izaten zen, Madrileko Gobernuaren Kultura Ordezkaritzara. Antzerki bat bazen, argumentua idatzi behar zen. Euskarazko berbak zeuden lekuan, itzulpena. Hor, itzulpenean, tranpa batzuk egiten genituen. Ez zen benetako itzulpena izaten. Gero neu joan nintzen bertara, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ordezkaritza gisa, gauzak aldatu zirenean. Zelan diren kontuak..."

Zentsurarekin arazo asko ote zeuzkaten galdetu diogu Lasueni.

B. LASUEN: "Bai, zentsurarekin bai. Gainera, kalkuluak egiten zituzten. Eskatzen genuen baimena, eta erantzunik ez. Ekitaldia egin behar zen egunaren bezperan, telegrama: 'Se suspende por no...'. Hasi zaitetz gero egunkarietara deika! 'Hauxe eta hauxe gertatu denez, ezin da egin'. Eta ukatu zigutenik ere ezin zen esan. Txarto pasatzen genuen. Tranpak derrigor egin behar! (...) Euren helburua oztopoak ipintzea zen, eta ahal dela ekitaldiak ez egitea, edo gutxiago egitea".



Kantugintza hizpide hartuta, Balendin Lasuenek hitz batzuen moldaketaren berri eman digu. Jatorriko abestiak honako hau zioen: “Itsasoan laino dago, Baionako barraraino”. *Moldatu* eta gero, leunagoa geratu zen: “Itsasoan laino dago, Itziartik Debaraino”.

1969an, Ordezkarri Probintzialak esaldi hau idatzi zuen Gerediagara igorritako eskutitzean: “Baime-na, ondoren aipatutako kantua abesteko baino ez da izango”. Zerrenda horretan “Herri mindua” zeritzon kantua ageri zen. Hara azkenengo ahapal-dia: “Entzun jauna herriaren oihua; jauna, entzun, askatu gaizuz”. Abestiak erlijio kutsua izan arren, salaketa-nahia ere ageri du; hala ere, Gobernuko Ordezkarriak hura kantatzeko baimena eman zuen. Abestien hitzei eta mezuei erreparatuz, beste abesti batzuk ere protesta-kantua direla konturatu gara. Horretaz ohartzeko nahikoa da bi kanturen esaldi hauek entzutea: “Libertadearen bila nora ote dua?”, eta “Euskal Herria hiltea?” Beraz, aprobetxatzeko moduko zirrikituak egon bazeuden.



Azokan programatutako ekitaldi folklorikoak debekatzeko arrazoirik ez omen zegoen agintarien iritziz. Dena dela, zaintza asko zorrotzu behar zen, dantzariak galazotako sinbolorik erakus ez zezaten. (“Azokako programa euskal folkloreko taldez eratuta dago eta debekatzeko arrazoirik ez dugu; hala ere, zorrotz zaindu behar da, dantzetan galazotako jantzirik eta sinbolorik agertu ez dadin”).

2005 eta 2014. EHUko irakasleak (ezkerrean).

2000. Errebindikazioak Azokan.





1969ko eskutiz hartan agintariak beste ohar bat ere egin zieten antolatzaileei: “Dantzan egiterakoan banderari agurra egiten badiote, bandera nazionalari egin beharko diote, nahitaez”.

Folklorearen inguruko murrizketak edo bidegabekeriak alde batera utzita, kulturaren oztopoei erreparatuko diegu. Jose Luis Lizundiak aitortu digunez, Iparraldean nahiz Parisen argitaratutako liburu batzuk ezkutuan pasatzen zituzten mugaren alde honetara. “Zentsura orokorra zegoen. Han erakusketan ezin zenuen ipini legez kontrako libururik. Gero, dena delako editorialak mahaipetik ateratzen zuen eta konfiantzazko bati salduko zion, baina hori beste kontu bat da”. Michel Labeguerie kantaria- ren adibidea jarri digu jarraian. (Kanboko alkatea ere bazela gogoratu behar da). “Gu gera Euskadiko

gaztedi berria” zioen Kanboko alkateak kantu batean. Disko hura ez zegoen baimenduta Hegoaldean, nahiz eta Iparraldean legala izan.

Bidasoaren alde bakoitzean legedi desberdina zegoen. Jon Irazabalen kronika baten arabera, argitalpen batzuk bahituak izateko arriskua zegoenez, Iparraldean argitaratzen zituzten eta ondoren ezkutuan bidaltzen Hegoaldera.

1978an, Javier Sanchez Erausquinen *Que se vayan* liburua bahitu zuten. Hala ere, oso azkar inprimatu zuten berriro Iparraldean. Angel Caminoren *Pertur, E.T.A. 71-76* liburuari beste horrenbeste gertatu zitzaion.

Zinemagintzari ere erasotzen zioten. Barojatarrek (Juliok eta Piok) 1970. urtean egindako *Navarra. Las cuatro estaciones* filma proiektatu behar zuten Jesuiten zineman, baina Gobernu Zibilak debekatu egin zuen.

Beraz, eraso ugari kulturaren arlo guztiei.

2001. Graffitiak eta errebindikazioak Azokan.





Militantzia

Nolako garrantzia izan du militantziak Gerediagan?

J.M. SALTERAIN: “Guk sinisten genuen horretan. Militantzia sasoiko jendea gara. Inork ez genuen kobratzen. Orduan sasoian horrela egiten ziren gauzak”.

Bazkideek parte hartzen zuten?

J.M.S.: “Oso gutxi. Babesa bai, babes morala. Urteko batzarra egiten genuenean jendea etortzen zen”.

Gerediagan langileak hartzeak nolako aldaketa ekarri zuen? Zer onerako eta zer kalterako?

J.M.S.: “Orain ere lau langile daude. Nik uste ordu pilo bat egiten dituztela. Ez dugu gehiegikeriarik egin, beti oso *austeroak* izan gara. Nik uste ona izan dela. Behar genituen minimo batzuk”.

80ko hamarkada. Jose Mari Uriarte eta Jon Irazabal Azokan.

1992. Mirari Erdoiza, Jose Luis Ferreria, Jon Irazabal eta Lourdes Corcuera.

1999. Azokako lan-taldea. Jon Irazabal, JL Ferreria, Ainhoa Munitxa, Monika Perez, JL Arruabarrena, Yolanda Larrañaga, Itziar Irazabal, Bego Urizar, Carmen Baños, Jose Antonio Azkorbebeitia, Esther Soto eta Benito Sanchez.

Jose Antonio Azkorbebeitia (*Azkorbe*), 80ko hamarkadan sortutako zuzendaritza-talde sendoko kidea hau ere, militante profilerla bete-betean egokitzen da. Langile nekaezina eta beti isil antzean ibiltzea nahiago duena.

JOSE ANTONIO AZKORBEBEITIA: “Nik uste militantziarik egon izan ez balitz ez zela egongo Azokarik. Orain hiruzpalau egongo dira kobratzen dutenak? Lehen batek baino ez zuen kobratzen. Kobratzen zuenean! Hala ere, Azoka ez zen gelditzen”.





Gaur egun badago filosofia horren arrastorik?

J.A.A.: “Oraindik baietz esango nuke. Esate baterako, Gerediagak jartzen duen standean sekula ez da falta izan jenderik. Azkenengo urteetan, ezagutzen ez dugun jendea ere egon da. Horrek esan nahi du jende berria ere badatorrela. Betiko dinosaurioak han egoten gara, baina ezagutzen ez ditugunak ere ikusi ditut han”.

Jon Irazabali ere galdetu diogu militantziari buruz.

J. I.: “Nik uste dut militantzia aldatu egin dela. Militantziak jarraitzen du, baina lehengo beste ez, argi eta garbi. Kulturaren mundua profesionalizatu egin da. (...) Zertarako deitzen diozu militanteari? Apar-kalekuak antolatzeko, kartelak ipintzeko eta abar. Jende militantea nahi baduzu, erabakitzeko eskubidea eman behar diozu, eta galdetu: ‘zuk zer iritzi duzu honetaz eta hartaz?’. Bestea morroitza da. GKEetan jarraitu du militantziak”.

2003. Azokako lan-taldea eta Gerediagako kideak Azokaren itxieran.

1999. Gerediagako standa. Lazaro Milikua, Bego Urizar eta “Azkorbe”.



Bestalde, Nerea Mujikak militantziari buruz egin duen hausnarketak hankazgora jarri dizkit aurreiritzi eta planteamendu batzuk.

N. M.: “Militantziarena beste mito bat da. Nik ez daukat soldatarik (batzuek uste dute badaukadala). Zuzendaritzakoak bolondresak dira. Askok lan asko egiten dute. Nik nire burua beste aldean ikusten dut. 400 eta piku bazkide gara. Bolondresak zer-gatik ez dute parte hartzen gehiago? Batetik, denok denbora faltan gabiltzalako; bestetik, igual ez dugulako mezua ondo zabaltzen. Ez dakit. Buelta asko eman dizkiot. Mota askotako boluntarioak daudela esango nuke”.



Mugarriak

Azokaren mugarriak era eskematikoan aurkezten saiatuko gara ondoren.

Jose Ignazio Alberdi Azokako zuzendari izan zen garaian agintariek erabaki zuten ezin zela azokarik egin elizpean eta merkatu-plazara bidali zituzten liburuzaleak. Azoka zigortzeko asmoz emandako agindua zen, noski, baina kalte barik mesede galanta egin zion Azokari luzara.

Jose Luis Letek 1985ean idatzitako artikulu batean bi oztopo nabarmendu zituen. Bata, aipatu berri duguna, hots, Bizkaiko Gobernadore Zibilak emandako agindua Azoka Andra Mariko elizpean egitea debekatzeko. “Hurrengo zangoartekoa Durangoko Udaletik datorkio Azokari —zioen Letek—, udalak IX. Euskal Liburu eta Disko Azokari laguntzarik ez ematea erabaki baitzuen”¹.




Aipatutako mugarriez gain, beste batzuk ere nabarmenduko lituzke Irazabalek. Adibidez, “Franco hil eta gero, eskerrak *Kixote* batzuk egon ziren eta eutsi egin zioten [Aldekoa-Otolora, Milikua eta Goi-kolearen lanak goraiatzan ditu]. Eta ez bakarrik *Kixoteak*, noizbehinka laguntzera etortzen zirenek ere aurrera atera zuten Azoka (Erzillatarrak, Mirari Erdoiza eta abar)”.

80ko hamarkada. Diskoak Andra Mariko elizpean.

90eko hamarkada. Merkatu plazan.

1 *Egin*. 1985, abenduak 5.





Merkatu-plazako supermerkatuan egun batetik bestera areto txukun bat egitea ere aurrerapauso berezia izan zen Irazabalen ustez.

“Gero, Azokak fisikoki jarraitu ezin zuen une bat iritsi zen”. Arazo horren aurrean, jakin badakigu Irazabalek sekulako hordagoa jo zuela aparkaleku handi batean 3.000 metro koadroko karpa bat jaritzeko. Oztopo bat gainditu arren, urrats hura behin-behineko lorpena izan zen, azkenengo jauzia Landakogunea lortzea izan baitzen, aspaldi eskatutako pabiloia.

2002. Karpa Landakon (goiko bi argazkiak).

2003. Urte horretan egin zen lehenengo Azoka Landako Gunean.







Etorkizunari begira


Elkartearen izena berriro hizpide hartuta, Gerediaga Abadiñoko auzune bat dela argituko dugu, bertakoontzat (*San*) *Salvadore*. Gerediaga Elkarateak euskal kulturaren salbazioa lortuko duela pentsatzea eta amestea inozo jokatzeta da, baina kulturaren osasunari asko lagundu diola eta laguntzen diola ukatzerik ez dago.

Zailtasunak gorabehera, eta iritziak iritzi, Durango-ko Azokak ibilbide luzea eta oparoa egin du. Etxepare sinetsi ezinik geratuko litzateke euskara gaur egun honelako plaza batean ikusita.

Iraganeko gertaerak eta izenak gogoratzea oso komenigarria da, baina amaitu aurretik ez genituzke ahaztu behar Elkartean eguneroko borrokan dihardutenak. Hor dabilta jo ta ke, eta ez gaur goizean hasita gainera, Aitziber Atorrasagasti, Ester Soto, *Epi* (Esther Garcia), Izaskun Ellakuriaga eta Jon Irazabal ere. Horiei zor diegu neurri handi batean gaur eguneko Azoka, eta bihar-etzikoa.

Nerea Mujikak esan berri digu etorkizunari begira Azokak bi ardatzi eutsi behar diela: kalitateari eta iritzi guztiak entzuteko jarrerari.

Elkarrizketatutako beste kide batzuei ere urrutira begiratzeko betaurrekoak jartzeko eskatu diegu. Jose Ignazio Alberdi, esate baterako, elkarrizketatu



gehienen antzera, baikorra da aurrera begira. “Durangoko Azokak sustrai batzuk eta berezitasun batzuk dituenaz, ondo ikusten dut etorkizuna”.

Balendin Lasuenek arazo praktiko batekin egiten du estropezu urtero: jende-pilaketarekin. Berak aitortu egin du bisitari askok eta askok izaten dugun sentsazio desatsegina. Arazo horri nola edo hala irtenbidea bilatu behar zaiola diosku. Jende-oldea nolabait mugatzeko, sarrera kobratzea komeni dela entzun izan diogu noizbait. “Europar zehar makina bat erakusketetan ibili naiz. (...) Domeka edo larunbat eguerdian, jende gehien dabilenean, onartezina da andra-gizonak kotxearekin eta bizpahiru umerekin atzera-aurreran ibiltzea. Hori ez da serioa. Horretarako, ipini ezazu ordu bat eta kitto. Ez da kobratzeagatik. Horri freno ipini behar zaio erarik egokienean. Liburu bat interesatzen bazazu, aurrean dauzkazunak joan arte itxaron behar duzu. Hori dela-eta, antolaketa aldetik puntu asko galtzen dira”.





Jon Irazabalek beste arazo praktiko bat aurreikusten du: “Guneak non kokatu pentsatu beharko da. Landakogunearen inguruan etxeak eraikitzeko asmoa dute. Momentuz lursail hori libre dago eta egin daiteke, baina gerora...” Bestalde, guneak kontsolidatzeko urte batzuk beharko direla esan ondoren, kezka bat adierazi digu. “Ez dugu ahaztu behar Durangokoa azoka bat dela eta espaziorik garrantzitsuenaz azoka bera dela. (...) Azokan saltzen den neurrian etorriko dira argitaletxeak, eta argitaletxeak datozen neurrian etorriko dira bisitariak. Kontuan hartu behar da azoka dela Azokaren bihotza. Batzuetan belduz irazaten dut azoka ez ote den alboratuta geratzen”.

Denborak argitu beharko ditu kezkak, eta garaian garaiko arduradunek konpondu beharko dituzte une bakoitzeko arazoak. Aurrerantzean ere Azoka bidegurutze askotara iritsiko da, eta norabidea aukeratzea (eta egokia asmatzea) ez da erraza izango. Beraz, jomuga ongi hautatzea opa diegu arduradunei, gure kulturak aurrera egin dezan eta gure ondareaz goza dezagun.

2014. Guneen aurkezpena.

2011. Kontzertua Ahotseneako karpán.



Azokan parte hartu duten *gerediagatar* gehienek jarraitzen dute elkarteari loturik, eta Azokara joateko ohiturarik ez dute galdu. Horieta batzuk standetan egoten dira, beste batzuk aholkulariak ere badira, eta denek hauspotzen dute Azoka nola edo hala.

Euskal kulturaren hauspolari eta ekintzaile horiei guztiei esker egin du Durangoko Azokak orain arteko bide oparoa. Eta, jakina, baita ere azken 50 urte hauetan euskal kulturaren fruituak eskatu eta dastatu dituzten milaka euskaltzaleei esker. Bi jendalde horiek eraiki dute Durangoko Azoka, mende erdiz euskaldunoi aterbe emanez. Eskerririk asko guztioi. Hitez, doinu eta irudiz moldatutako guztion etxeak luzaro iraun dezala zutik.

